



Euskal kirol federazioetan
genero ikuspuntua
integrazteko gida



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2010eko azaroa

Elaborazioa eta diseinua:
Avento Consultoría

www.aventoconsultoria.com

Zergatik?	2
Nola?	3
Arloak	
Egitura	5
Kirola	8
Ekonomia	11
Komunikazioa	14
Lotura interesgarriak	15

Zergatik?



Kirol esparruan **generoen arteko alde** handiena kirol elkarteen arloan antzematen da. Egoera hau, kirola egiten duten emakumeen kopuruan zein estamendu teknikoetan edota epaile eta kudeaketa estamentuetan dauden emakumeen kopuruan islatzen da. 2009n EAEko federazio-lizentzietatik soilik %22 izan ziren emakumeenak. Euskal kirol federazioetako erabaki-hartze karguei dagokienez, 2004-2008 legealdiko presidentetza karguen %9 emakumeenak izan ziren; 2009ko hauteskunde prozesuen ondoren soilik emakume bat (%0,6) da euskal kirol federazio bateko presidente.

Hala ere, kirol arloan, partaidetzan, emakume eta gizonen artean dauden ezberdintasunak, izaera kuantitatiboaz gain, izaera **kualitatiboa** duten beste aldagai batzuen eragina dela eta gertatzen dira. Eta

ezinbestekoa da aldagai hauek kontuan hartzea sexu bakoitzaren kirol-ohiturak aztertzeko, eta horrenbestez, arlo honetan berdintasunerako neurriak sustatzeko. Aipatu aspektu kualitatibo hauek, orohar antzematea zaila direnak, emakumeek kirolarekin duten harremanean erabakigarriak izan daitezke, askotan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak eragiten dituzten iragazkiak direlako.

Euskal Kirol federazioetan genero ikuspuntua integratzeko Gida hau, kirol arloko estamentu guztietan emakumeen partaidetza baldintzatzen duten oinarrizko aspektu kualitatibo horiek antzemateko eta zuzentzeko **tresna** da. Beraz, federazioei emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bermatzen duen kudeaketa egiten laguntzeko egina da.

Kirol erakunde bat genero ikuspuntutik kudeatzeak, kirol egitura guztiaren funtzionamendua diseinatzean sexu bat edo bestearekiko diskriminazio egoerak ekiditeko-kirolariei egiten zaien eskaintza zein estamentu teknikoan eta epaileen estamentuak kudeatzean eta antolatzean- **emakume** eta **gizonen premiak** kontuan hartzea esan nahi du.

Gida honetan federazio baten eginkizunekin zerikusia duten **oinarrizko aspektuak** bildu dira **lau arlotan**. Ezinbestekoa da aspektu hauek kontuan hartzea federazioaren kudeaketan genero ikuspuntua integratzeko. Gidak emakume eta gizonen berdintasunean funtsatzen den kudeaketa egiteko oinarrizko zenbait ekintza proposatzen ditu.

Nola?



Arloak

Egitura

Kirola

Ekonomia

Komunikazioa

① Plangintza

Plangintza eta programaketa generoaren ikuspuntutik egitea, hau da, emakume eta gizon kirolarien beharrak kontuan hartuz.

Lehiaketetarako **datak** gizon zein emakumeen lehentasunak, ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta esleitu behar dira, sistematikoki sexu batek bestearekiko lehentasuna izan gabe.

Emakumeen lehiaketa bat antolatzeko, instalazioetan emakumeentzat **aldagelak** eta komunak egon behar dute. Lehiaketa bat antolatzen duen elkarte orori baldintza hau betearazi beharko litzaioke.

① Aurrekontua

Aurrekontuaren aplikazioak duen **genero-eragina** ezagutzea. Inbertsioek eta aurreikusten den diru-kopuruak emakume eta gizonengan duen eragina kontuan hartu behar da desberdintasunak ekiditeko.

*Ikus 3 atala -ekonomikoa-.

① Kontzesio eta kontratazioa

Federazioak **kontratutako pertsonalak** eta **azpikontratutako** enpresek **berdintasunaren printzipioa** errespeta dezaten ziurtatu.

Kirol-ekintzak antolatzeko, lizentziak igortzeko, web orria e.a. egiteko azpikontratutako enpresei zenbait **baldintza** (komunikazioan, erantzunkidetasunean) **betearazi**.

Hautespen-prozesu gardenak egin, deialdien hedapena eginez.

① Diru-laguntzak eta sariak

Estamentu guztietan emakumeen partaidetza sustatzeko irizpideak eta ekintza positiboak ezartzea. Emakumeen partaidetza **balioetsi** eta ezagutzera eman.

Sari bat eman modalitate horretako emakume kirolariak ezagutzera emateko eta kirolari honen irudia zabaltzeko beste emakumeentzat eredu izan dadin.

egitura

① Gobernu-organoen egitura

Erabaki-hartze organuetan **parekotasuna** sustatzeko mekanismoak ezarri, edota erabakiak hartzeko bi sexuen **partaidetza** ahalbidetzeko mekanismoak ezarri (zuzendaritza, estamendu teknikoa...).

Bertaratuta egiten diren bilera kopurua murriztu, gizon zein emakumeen partaidetza bermatzen duten **komunikazio-kanalak** sortu, bileren **ordutegiak** Zuzendaritza Batzordeko kide guztien beharretara egokitu, e.a.



① Eskaintza

Eskaintzaren kalitatea eta egokitzapena. Kirolarien segmentu ezberdinen beharretara egokitutako eskaintza diseinatzea, **adina** eta **sexua** kontuan hartuz.

16 eta 22 urte-arteko **kirola uzteko zergatiak** aztertzea, neskek kirola uzteko dituzten arrazoiei arreta berezia eskainiz.

Behar ezberdinak antzematea eta eskaintza eskariari egokitzea.

Soilik eskaintza mota bat egiten da, eta gainera eskaintza hori kirol-errendimendura zuzentzen da batik bat? Kirola uzten duten kirolarien kopurua gutxituko litzateke

Sexu bati eta besteari egiten zaion eskaintza egituratua eta finkatua egotea bermatzea, eta **epe luzean** behar bati aurre egiteko diseinatua egotea -neurri estrukturala-. Kategoria puntualen sorrera ekiditea -egoeraren araberako neurria-.

① Giza baliabideen banaketa

Emakumeen zein gizonen ekintzetarako giza baliabideen **prestakuntza** bermatzea.

Zehaztuz...

Emakumeen entrenatzaileek ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte?
Emakumeen entrenatzaileek prestakuntza gutxiago dute?
Ze kirolari edo kirol-talde entrenatzen dituzte trebakuntza gehien duten entrenatzaileek?
Gizonei zein emakumeei zerbitzu mediko eta fisioterapiako zerbitzu bera eskaintzen zaie?

kirola

Epaileak izendatzen direnean garrantzitsua da...

Emakumeen eta gizonen lehiaketetarako epaile **kopuru** bera izendatzea.

Emakumeen eta gizonen maila bereko lehiaketetako epaileek **ordainsari** bera izatea.

Epaileen **promozioa**: emakumeek eta gizonek igotzeko aukera berdinak edukitzea bermatzen duten irizpideak ezartzea.



❗ Baliabide materialen banaketa

Gizon eta emakumeen artean oreka ezartzea **zerbitzuen, ordutegien, espazioen eta arropen banaketari dagokionez.**

Emakumeei ez esleitzea, sistematikoki, **ordutegi txarrenak** edo deserosoenak.

Emakumeei (edo emakumeen taldeei) ez esleitzea, sistematikoki, **instalazio txarrenak** -okerren kontserbatuak edo prestazio gutxien dituztenak-, irisgarritasun eta argiztapen okerrenak dituztenak.

Kirol-arropa erosterakoan emakumeen **morfologia** kontuan hartzea eta diseinua kirola egiteko erosoak izan dadin bermatzea.

kirola

① **Teknifikazio ikastaroak**

Estamentu ezberdinen (epaileak, teknikariak, e.a.) **teknifikazioan emakumeen partaidetza** sustatzea.

Estamentu hauetan jada parte-hartzen duten emakumeak **irakasle** izatea.

Ikastaroetan jorratzen diren **edukietan** genero ikuspuntua integratzea.

Ikastaroetan parte-hartzen duten pertsonen **kopurua** handitzeko neurriak ezartzea, batez ere, emakumeen partaidetza sustatzeko.

- Zenbait federazioetan, kirolariak, kirol maila batzuetan lehiatu ahal izateko, jokorauei buruzko lau orduko oinarrizko ikastaro bat egitera beharturik daude.



kirola

ekonomia

Federazioek Administrazioari, denboraldian zehar burututako ekintzei buruzko **memoria** baten bidez edota ekitaldiaren datu ekonomikoen bidez (**Emaitza-Kontua, Egoeraren Balantzea**) justifikatzen diote jasotako diru-laguntza.

GASTUAK	
Eskola kirola	24.500,00 €
Federazioko gastuak	9.400,00 €
Kirol-materiala	25.000,00 €
Kirol-pertsonala	50.000,00 €
Aseguruak	9.600,00 €
Diru-laguntzak eta sariak	6.000,00 €
Selekzioen bidaiak	30.000,00 €
GASTUAK GUZTIRA	154.500,00 €

Informazio hau **ez da nahikoa generoaren ikuspuntutik** dirua zertan gastatu den jakiteko. Komenigarria da zenbat, nola eta zein baliabide zuzentzen diren emakumeek egiten dituzten ekintzetara, eta baliabide ekonomikoen esleipenean sexuen artean desoreka dagoen ala ez jakitea.

Ezinbestekoa da kirol erakundearen zenbait partida **banakatzea emakume eta gizonetan** egindako gastuen portzentajea egotziz.

ekonomia

GASTUAK			
	Gizonen tal.	Emakumeen tal.	Guztira
Eskola kirola	12.250,00	12.250,00	24.500,00
Federazioko gastuak			9.400,00
Material materiala	18.000,00	7.000,00	25.000,00
Kirol-pertsonala	47.000,00	3.000,00	50.000,00
Aseguruak			9.600,00
Diru-laguntzak eta sariak	4.500,00	1.500,00	6.000,00
Selekzioen bidaiak	24.000,00	4.000,00	30.000,00
GASTUAK GUZTIRA			154.500,00

Zenbait partida emakumeen edo gizonen kategoriaren baitan banakatzeak egon daitezkeen diskriminazio egoerak azalerazi ditzake. Hala ere, kontuan hartu behar da kategoria bakoitzean gastatutako diru-kopurua ezberdina izan daitekeela kategoria bateko talde kopurua handiagoa delako. Horregatik, komenigarria da **kirolari bakoitzaren, emakume zein gizon, gastuaren ratioa** kalkulatzeko.

Aurreko adibidearekin jarraituz, jo dezagun bere egituran 6 selekzio dituen federazio batetaz ari garela. Selekzio horietatik 4 gizonen kategoriakoak dira eta 2 emakumeenak. Talde bakoitzean 20 kirolari daude. Kirolari bakoitzeko gastuaren ratioa kalkulatzeko dugu.

ekonomia

	GASTUAK				
	<i>Gizonen tal.</i>	<i>kirolaria</i>	<i>Emakumeen tal.</i>	<i>kirolaria</i>	Guztira
Eskola kirola					24.500,00
Federazioko gastuak					9.400,00
Kirol-materiala	18.000,00	225,00	7.000,00	175,00	25.000,00
Kirol-pertsonala	47.000,00	587,5	3.000,00	75,00	50.000
Aseguruak					9.600,00
Diru-laguntzak eta sariak	4.500,00	56,25	1.500,00	37,5	6.000,00
Selekzioen bidaiak	24.000,00	300,00	4.000,00	100,00	30.000,00
GASTUAK GUZTIRA					154.500,00

Ratioaren kalkuluarekin (gastua/kirolaria) *kirol-pertsonala*, *selekzioen bidaiak* eta *kirol-materiala* partiden esleipenean sexuen arrazoiengatiko diskriminazioa dagoela nabari da.

Komenigarria da federazio batek bere jardueraren **eragin ekonomikoa genero ikuspuntutik** ezagutzea, kasuan kasu, baliabideen banaketan oreka berrezartzeko ekintzak abian jarri ditzan.



① **Berdintasunezko komunikazioa**

Hizkuntza eta **irudien erabilpen ez sexista** egitea, eta bi sexuen partaidetza erakustea*.

Gizonen kategoriei ez eskaintzea, sistematikoki, **protagonismo** handiagoa.

Sexu bati eta besteari bidezko espazioak eskaini (web orria, prentsa, e.a.).

Emakume eta gizon kirolariei buruz ematen den informazioa orekatzea ahalbidetzen duen irizpidea ezartzea, esaterako, lehiaketako egutegiak edo emaitzak azaltzen diren ordenari dagokionez.

Federazioaren **komunikazio** guztian hizkuntzaren erabilera sexista egitea ekiditea (web orria, prentsa oharrak, araudia, inprimakiak, zirkularrak, e.a.).

Norbere arlo edo estamentuetan beste emakumeentzat **eredu** izan daitezkeen emakumeen **irudiak** zabaltzea.

* Ikus baita ere Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2007n argitaratutako *Kirolean berdintasunerako komunikazio gida*.

komunikazioa

Lotura interesgarriak

Kirolean berdintasunerako komunikazio gida. *Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, 2007.*

[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-714/es/contenidos/informacion/berdintasunerako_gida/es_gida/adjuntos/GUIA_comunicacion.pdf)

[714/es/contenidos/informacion/berdintasunerako_gida/es_gida/adjuntos/GUIA_comunicacion.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-714/es/contenidos/informacion/berdintasunerako_gida/es_gida/adjuntos/GUIA_comunicacion.pdf)

Guía del lenguaje para el ámbito del deporte. *Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer, 2007.*

[http://www.emakunde.euskadi.net/u72-](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/guia_lenguaje_deport_es.pdf)

[publicac/es/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/guia_lenguaje_deport_es.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/guia_lenguaje_deport_es.pdf)

Buenas prácticas de género en el deporte. *Consejo Catalán del Deporte, 2006.*

Acciones i no paraules: bones pràctiques de gènere en l'esport

<http://www.xtec.cat/innovacio/coeducacio/pdf/consellesport1.pdf>



